



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Batzar Nagusiek eskaerea egin deusie Eusko Jaurlaritzari, harrobien sektorearen antolamendu plan eguneratua egin daian**

Bilbon, 2014ko zezeilaren 7an.

Gaur Bilbon bildu dan Batzar Nagusietako Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordeak arauz besteko proposamen bat onartu dau, Eusko Jaurlaritzari, Kareharrizko Agregakinen Ustiatgien Lurraldearen Arloko Plana (LAP-PTS) egin daian eskatzeko, “adostasun politiko eta instituzional handiena eta gai horretan zeresana daben ekonomia eta gizarte arloetako eragileen adostasuna” bilatuz. Ekimena PP taldeak aurkeztu dau. Talde horrek batzordean dauan bozeroaleak, Arturo Aldecoak, uste dau sektore antolamendu hori “orain 16 urtetik egin barik dagoan gaia dala, “1997. urtean, Lurralde Antolamendurako Zuzentarauetan agertzen zalako Harrobi izateko eremuen Lurraldearen Arloko Plana egin behar zala”.

Proposamenak aurrera egin dau PP, PSE-EE eta EH Bildu taldeen aldeko botoagaz eta EAJ-PNV-ren abstentzinoagaz. Talde horretako bozeroaleak harrobiek Euskadiko eta Bizkaiko ekonomian beteten daben lekua azpimarratu dau, baina bere eretxiz, “edozein sektore plan hasi aurretik, une honetan dagoan Kareharrizko Agregakinen erreserben mailea eta etorkizuneko kontsumo aurreikuspenak aztertu behar dira, ekonomian eta industrian bizi doguzan zalantza garaiak kontuan izanda”. EH Bildu proposamenaren alde agertu da, baina Asier Vega batzordekideak eskaera bat egin dau, egiten dan planak “ingurumenagaz eta lurraldearen kultur ondarearen kontserbazinoagaz erlasionautako alderdi guztiak oso kontuan izan daizan”, eta ez daiten “interes desarrollisten eta zementuaren eta eraikuntzaren industria ‘lobby’-aren helburuetara makurtu”.

### **ZEBRA MUSKUILUAREN PRESENTZIA**

Beste alde batetik, Iosu Madariaga Ingurumen diputatuak, Batzarretako PP taldearen eskariz, baita be, zebra-muskuiluaren izurriteak lurraldeko uretan izan dauan hedapenari eta Sailak espezie inbaditzaile horren zabalkuntzeari aurre egiteko hartu dituan neurriei buruzko informazioa emon dau. Espeziea aurkitu da, dagoaneko, Zeanurin dagoan Undurragako urtegian, Arratia ibaian, Nerbioi Behean, Basauri parean, eta Arrigorriagan dagoan Mendikosoloko urtegian.

Zebra muskuiluaren zabaltzea saihesteko edo moteltzeko ekimenak hainbat moetatukoak dira, eta horreen artean, muskuilu horren populazioen jarraipenerako neurriak eta muskuilua hobeto ezagutzeko ikerketa lanak dagoz. Horrez gain, Ingurumen Sailak, zebra muskuilua ur-masetan zabaltzeko arriskua txikitzeko neurriak be jarri ditu martxan, Undurraga-Venta Alta ur hoditerian zabaltzeko dagoan arriskuaren azterketa, adibidez. Ganera, Foru aginduetan muskuiluaren arrantza araupetzeko mekanismoak sartu ditu. Bukatzeko, guneak edo espezieak babesteko neurriak be jarri dira martxan, naiadeen Kudeaketarako Plana egitea eta dibulgazinarako, prestakuntzarako eta sentsibilizazinarako beste neurri batzuk.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

#### VISTA ALEGRE BURUTZAPEN EREMUA

Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordeak Vista Alegre burutzapen eremuan egindako kudeaketea be landu dau. Bertan, Mendexako Udalak 24 etxebizitza eta aparkaleku bat eregi gura izan ebazan Karraspio hondartzaren ondoan, baina Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak (EJZN-TSJPV) geldiarazota itxi dau proiektu hori.

EAJ-PNV taldeko María Presaren berbetan, Urigintzako 2037/2012 Foru Araua hutsa dala adierazoten dauan EJZN-TSJPV-ren epaiaren zergaitia “Prozedurazko izapide desegokia jarraitu izana da”, eta, hori dala eta, horren aurrean helegitea aurkeztuko dala adierazo dau. Asier Vega EH Bilduko bozeroalea ez da ados agertu helegite hori aurkezteagaz eta, ganera, Mendexako Vista Alegre inguru horretan egoan eta “balio ekologiko handia” eukan zurbaltz kantabriarreko baso bat, azken urteetan desagertzen joan izanari buruzko azalpenak eskatu ditu. Baso horren egoerea SOS Karraspio plataformak salatu eban.

#### ZUGAITZ BEREZIAK

Amaitzeko, Iosu Madariagak, Bizkaian dagozan zugaitz “berezien” babesera zuzendutako azterlana aurkeztu dau, PP taldearen beste eskaera bati erantzunez. 2012. urtearen bukaeran, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak, “zugaitz bereziak” aukeratzeko prozedura hasi eban. Behar horretan lurralde historikoko 18 udalen laguntzea euki dau. Guztira 40 zugaitz proponidu dira (25 zugaitz bertako espezietaoak dira, eta 15 espezie exotikoetakoak; 25 landa eremuan dagoz, eta 15 kale ingurunean).

Azkenean, euren interes berezia dala eta aukeratutako zugaitzak honeek izan dira: Goitako zumarra (Mallabia), Trutziozoko Aretx motza (Trutzioz), Fuente Trevillako zurbaltz bizia (Karrantza), Burbustuko Aretx motza (Zaratamo), San Estebango zurbaltz motza (Galdames), Ahedoko arte motza (Karrantza) eta Presako gaztainadiko Gaztainondoa (Karrantza).



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Las Juntas Generales instan al Gobierno Vasco a elaborar un plan de ordenación actualizado del sector de canteras**

Bilbao, a 7 de febrero de 2014.

La Comisión de Agricultura y Medio Ambiente de las Juntas Generales, reunida hoy en Bilbao, ha aprobado una proposición no de norma para pedir al Gobierno Vasco que elabore un Plan Territorial Sectorial (PTS) de Explotaciones de Áridos Calizos, buscando "el máximo consenso político e institucional y de los agentes económicos y sociales involucrados". La iniciativa ha partido del PP, cuyo portavoz en la comisión, Arturo Aldecoa, considera esta ordenación sectorial "un tema pendiente desde hace 16 años, puesto que las DOT establecían ya en 1997 la necesidad de elaborar un marco de referencia para un tratamiento homogéneo de dichas actividades".

La proposición ha salido adelante con los votos a favor de PP, PSE-EE y EH Bildu y la abstención de PNV, cuya portavoz ha destacado el papel de las canteras en la economía de Euskadi y de Bizkaia, aunque cree que "antes de iniciar cualquier plan sectorial habría que evaluar bien el nivel de reservas de áridos calizos que existen y las previsiones de consumo a futuro, teniendo en cuenta los tiempos de incertidumbre económica e industrial que vivimos". Por su parte, EH Bildu ha apoyado la propuesta, aunque su apoderado, Asier Vega, ha pedido que el plan que se elabore "tenga muy en cuenta aspectos medioambientales y de conservación del patrimonio cultural del territorio" y no responda a "intereses desarrollistas y del 'lobby' de la industria cementera y de la construcción".

### **PRESENCIA DEL MEJILLÓN CEBRA**

Por otro lado, el diputado de Medio Ambiente, Iosu Madariaga, a petición también del grupo juntero del PP, ha informado sobre la evolución de la presencia del mejillón cebra en aguas del territorio y las medidas que está adoptando su Departamento para combatir la proliferación de esta especie invasora, que ya ha sido localizada en el embalse de Undurraga en Zeanuri, en el río Arratia, en el Bajo Nervión a la altura de Basauri y en el embalse de Mendikosolo de Arrigorriaga.

Las iniciativas para evitar o frenar la expansión del mejillón cebra son de diverso tipo e incluyen medidas de seguimiento de las poblaciones de este molusco y trabajos de investigación y mejora del conocimiento del mismo. Asimismo, el Departamento de Medio Ambiente ha puesto en marcha medidas de minimización del riesgo de expansión del mejillón cebra en masas de agua, incluido un análisis del riesgo de su expansión a lo largo de la conducción de agua Undurraga-Venta Alta, así como la incorporación de mecanismos reguladores de la pesca en las órdenes forales. Finalmente, se han activado medidas relativas a la conservación de zonas o especies, como la elaboración de un Plan de Gestión de náyades, y otras medidas de divulgación, formación y sensibilización.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## UNIDAD DE EJECUCIÓN DE VISTA ALEGRE

La Comisión de Agricultura y Medio Ambiente ha abordado también la gestión realizada en torno a la unidad de ejecución de Vista Alegre en donde el ayuntamiento de Mendexa pretendía construir 24 viviendas y un aparcamiento público junto a la playa de Karraspio, proyecto que fue paralizado por el Tribunal Supremo de Justicia del País Vasco (TSJPV).

En opinión de la representante del PNV, María Presa, la sentencia del TSJPV, que declara nula la Orden Foral 2037/2012 de Urbanismo, se ha debido a “que se ha seguido un trámite procedimental inadecuado”, por lo que ha anunciado un recurso a la misma. Un recurso con el que ha mostrado su desacuerdo el portavoz de EH Bildu, Asier Vega, que, además, ha solicitado explicaciones sobre la progresiva desaparición en los últimos años de un bosque de encinar cantábrico de “gran valor ecológico” localizado en la citada zona de Vista Alegre de Mendexa, cuya situación ya fue denunciada por la Plataforma SOS Karraspio.

## ÁRBOLES SINGULARES

Finalmente, Iosu Madariaga ha presentado un estudio para la protección de árboles “singulares” repartidos por Bizkaia, en respuesta a otra petición del PP. En este sentido, a finales de 2012 el Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia inició un procedimiento de selección de “árboles singulares” que ha contado con la colaboración de 18 ayuntamientos del territorio histórico, que han propuesto un total de 40 ejemplares (25 de especies autóctonas y 15 de exóticas; 25 en ámbito rural y 15 en entorno urbano).

Finalmente, los árboles seleccionados por su especial interés han sido el Olmo de Goita (Mallabia), el Roble trasmucho de Trucios (Truzioz), la Encina brava de fuente Trevilla (Karrantza), el Roble trasmucho de Burbustu (Zaratamo), la Encina trasmocha de San Esteban (Galdames), la Encina trasmocha de Ahedo (Karrantza) y el Castaño del castañar de Presa (Karrantza).